



15 LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA



HELBURUA:

Basoak modu iraunkorrean kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa gelditzea eta biodibertsitatearen galera ekiditea

15. GJHK lehorreko biodibertsitatearen galera ekidin nahi du, horretarako ekosistemetako bizitza babestu, lehengoratu eta modu jasangarrian erabiltzea sustatuz

Horretarako ondorengo arloak lantzen dira...

- Lehorreko eta ur gezetako ekosistemen balioa
- Eremu lehortar naturalen eta bertako fauna eta floraren kudeaketa: Basoak, laborantza lurrak eta ur geza
- Eremu lehorrean eragina duten faktoreak: lurzoru kutsatu edo degradatuak, espezie exotiko inbaditzaileak
- Hiri biodibertsitatea
- Naturaren ezagutza eta herritarren sentsibilizazioa

Garapen Jasangarrirako **15. Helburuak** lantzen dituen arloak kontuan hartuz, jarraian zehazten diren GJH izango ditu lankidetzatza eremu gehien:



ZEIN PUNTUTAN DAGO ZARAUTZ?

Ekosistemen degradazioa eta biodibertsitatearen galera gizarteak hurrengo hamarkadan aurre egin beharko dien mehatxu handienetakoa dira klima aldaketarekin batera. Garrantzitsua da biodibertsitatea berreskuratzen joatea pertsonen, planetaren, klimaren eta ekonomiaren mesedetan. Gainera, naturak, eta bereziki ekosistemek zerbitzuak ematen dizkigu gizakioi, hala nola, **hornikuntza zerbitzuak** (elikagaiak, zura, ura, energia, zuntzak...), **erregulazio zerbitzuak** (ur arazketa, hondar deskonposizioa, polinizazioa, klimaren erregulazioa, gaixotasunen kontrola) eta **kultura zerbitzuak** (aisia, hezkuntza, estetika...).

Zarauzko eremu lehortar (eta ur geza) naturala

Zarautzek paisaia, natura eta biodibertsitate balio handiko eremuak ditu, izan ere, landa-, mendi- eta itsaso-ingurunearen konbinazioz sortutako habitat naturalak nabarmenak dira, eta bertan bizi, babestu, ugaltu...egiten dira hainbat eta hainbat fauna eta flora espezie.

Zarautzeko eremu naturalaren azalera handiena, hain zuzen ere udalerriko azalera osoaren **%46a**, abeltzaintzarako erabiltzen edo erabiliak izan diren lurzoruek, hau da, **belardi, larre eta sastrakadiak** hartzen dute, eta ondoren, basoek jarraitzen diote (%28). Nekazaritzako lurzoruek zati txiki bat hartzen dute, %6a soilik.

Aipatu behar da eremu artifizializatuan, hau da hiri eremuan, eremu naturalak ere badaudela eta sustatu direla Zarautzen, adibidez, dunak, Iritako hezegunea eta Astierreke ingurunea urarekin zer ikusia dutenak.



Iturria: Baso mapa 2021, Eusko Jaurlaritza

Laborantza lurrak

Laborantzearako bideratutako lurrak (nekazaritza eta abeltzaintzarakoak direnak) eta **basoek** hornikuntza zerbitzuak eskaintzen dituzte (elikagaiak eta zura). Orokorrean, eremu lauenetan kokatutako basoak eta erreka ertzetakoak, batez ere laborantza lurretarako edo egur ustiaketarako (hazkunde azkarreko espeziak jarriz) ordezkatu izan dira.

Zarautzen kasuan, **laborantzearako bideratutako lurren** zati oso txikia da lur publikoa, %1 abeltzaintzarako eta %1 nekazaritzarako hain zuzen ere. Baserriari lotutako ustiapen modu hauek mantentzea beharrezkoa da, lehorreko biodibertsitatea mantentzeko, baita bertako ekonomia, paisaia eta kultura mantentzeko ere. A-8 autobidearen hegoaldeko ia zona osoan nekazaritza paisaia da bereizgarri.


Baso lurrak

Basoei bideratutako lurzorua ia bere osotasunean da lurjabe pribatukoa, basoen %8a da soilik lur publikoa. Baso azalaren **laurdena konifero basoei** dagokie (%3 lur publikoa) eta **%75a hostozabalen basoei** (ia %10).

Baso espezieen banaketari dagokionez, aipatzekoa da **baso autoktonoen presentzia nabarmena**, **baso azalera osoaren %70** hartzen dutelarik gutxi gorabehera. Bertan baso misto atlantiko eta hariztiak gailentzen dira (%61) eta hauek udalerraren eremu osoan sakabanatuta agertzen dira. Ibai ertzetako baso eta haltzadiak basoaren %6a okupatzen dute aipatzekoak direlarik Tejeriako haltzadia baita Pagoeta ingurukoa ere. Artelatx eta artadi basoak ere, nahiz eta eremua txikia izan (%1), garrantzitsuak dira, izan ere EAEko artelatx basoen %76a Garate-Santa Barbara eremuan dago (Zarautz eta Getaria). Amaitzeko ez dira aipatu gabe utzi nahi Elkano eremuan kokatutako pagadiak (%1) eta Garate-Santa Barbara eremuko gaztainondoak (%0,1).

LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA

Basoetako espezieen banaketa (2021)



Iturria: Baso mapa 2021, Eusko Jaurlaritza

Ikusi den moduan, Zarautzeko lurzorua zati handiena lur pribatua da, horrek zaildu egiten duela bai basoen, baita laborantza lurren kudeaketa ere, eta beraz bertan bizi diren espezieen kontserbazioa ere. Urkomek 2016an Zarautzeko lehen sektorearen azterketa egin zuen. Bertan, parte hartu zuten lur jabeen %32ak lurra soberan zituen, beste bati uzteko moduan, baina soilik horien erdia zegoen prest lurra uzteko.

Hiri eremua

Hiri eremuari dagokionez, Zarautzek daukan kostaldeko kokapena dela eta, natura elementu garrantzitsuak ditu, hala nola, **lñurritzako biotopoa**, non dunak, padurak eta itsaslabarrak aurki daitezkeen, eta **hondartza**, zeina Gipuzkoako handiena den eta diziplina anitzeko eremua den.

Hiri biodibertsitatea eta hau osatzen duten hiri barruko eremu berdeak, gaur egun ezinbesteko elementuak dira, izan ere biztanleriaren bizi kalitatea eta osasuna hobetzen dute, herritarrei natura ingurunearekin harremana izateko aukera dira eta aldi berean, sentsibilizazio gune interesgarriak dira. Horrez gain, klima aldaketa arintzeko konponbide ere badira eta baita faunaren joan etorriak errazteko ere. Nahiz eta Zarautzen badauden hirian integratuta dauden eremu naturalak, gehiengoak periferian kokatzen dira eta herriko tramarekin lotura falta nahiko agerikoa da.

Ur eremua

Uraren eremuari dagokionez, garrantzitsuak dira bai biodibertsitatearen aldetik baita eskaintzen dituzten beste ekosistema zerbitzuengatik ere, hala nola inguruko eremu hiritartuaren klimaren erregulazioa eta aisia eta hezkuntza ahalbidetzen dute **lñurritza errekastoa eta Irita eta Asti inguruak**. Aipatzekoa da, Zarautzik igarotzen diren erreken tramuak lurrazpitik pasatzen direla kasu askotan. Ur-gezako eremu guzti hauek, uraren hornidura zerbitzua ere eskaintzen dute.

lñurritzako errekastoen **egoera ekologikoa moderatua** da 2020. urtean, eta azken 5 urteetan ez du aldaketarik izan. Diagnostiko hau batez ere makroornogabeen komunitatearen gabezia eta ibilguak erakusten duen egoera hidromorfologikoari dagokio.

	2016	2014	2018	2019	2020
Egoera biologikoa	Moderatua				
Makroornogabeak	Moderatua				
Organismo fitobentonikoak	Ona				
Arrain Fauna	Ona	Oso ona	Ona		
Egoera fisiko-kimikoa	Ona				
Egoera hidromorfologikoa	Ez da ebaluatu				Eskasa
EGOERA EKOLOGIKOA	MODERATUA				

Iturria: EAEko ibaien egoera biologikoaren jarraipena egiteko sarea. 2020ko kanpaina. URA

LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA

Babestutako eremuak, habitatak eta fauna eta flora espezieak

Ikusi denez, eremu natural aberasgarria dago Zarautzen eta honen kontserbazioa bermatze aldera **Zarautzeko lurzorua %12,4 babestuta** dago (Udala 2020). Babestutako eremu horretan lehorreko zein kostaldeko eremuak daude barneratuta. Hauen gehiengo udalaz gaindiko erakundeek babestuta dauzkate eta Udalak, Zarautzeko Hiri Antolamendurako Plan Orokorren bidez (ZHAPO), eremua hauek ere bereganatu ditu babes bereziko kategoria moduan. Nahiz eta kuantitatiboki datua erkidegoko batez bestekoa baino zertxobait baxuagoa izan (EAE %19), esan behar da, eremu anitzak daudela barneratuta eta honek aberasgarritasuna ematen diola herriari:

Eremua	Udalaz gaindiko babesa	Biodibertsitate aldetik daukan garrantzia
IÑURRITZAKO BIOTOPOA	<ul style="list-style-type: none"> Biotopo babestua Natura 2000 Sarea, (Kontserbazio Bereziko Eremua, KBE) 	<p>Iñurritzak balio eta interes faunistiko eta floristiko handiko enklabeak gordetzen ditu eremu txiki batean, Zarautz eta Aia artean. Zarautzi eremuaren %67a dagokio (54,28ha).</p> <p>Bertan daude Euskal Herriko itsasertzeko ekosistemen irudikapen onenetako bat: duna-sistema, estuario-sistema eta itsaslabarrei dagokiena. Batasunaren intereseko habitatak ere daude bertan, eta garrantzi handiko natura-guneak dira kostaldeko habitatak eta landaredi halofitikoak kontserbatzeko.</p>
GARATE-SANTA BARBARA	Natura 2000 Sarea, Kontserbazio Bereziko Eremua	<p>Garate-Santa Barbarak Getariako eta Zarautzeko lursailak hartzen ditu; hain zuzen, 52,73 hektarea Zarautzen daude, KBEren % 38,92.</p> <p>Balio natural handiko zonaldea da; izan ere, landare eta animalia espezie ugariaren habitata da, eta aparteko paisaiak ditu baso eta larre mosaikoz osatuta.</p> <p>Artelatzen erreinua da Garate-Santa Barbara, Euskal Autonomia Erkidegoko artelatzen basoen % 76 bertan dago. Artelatza (<i>Quercus suber</i>) Arrisku Egoeran dauden Animalia eta Landareen Euskal Herriko Katalogoan Interes Bereziko espezien zerrendan jasota dago.</p>
PAGOETA	<ul style="list-style-type: none"> Parke Naturala Natura 2000 Sarea, Kontserbazio Bereziko Eremua 	<p>Pagoetak Aia, Zestoa eta Zarautzeko lursailak hartzen ditu; hain zuzen, 36,4 hektarea Zarautzen daude, KBEren ia %3. Zarautzeko eremuari dagokionez hariztiak eta erreka ertzetako basoak agertu daitezke eremu honetan, baita baserriei lotutako habitat seminaturalak ere.</p>
SANTA BARBARAKO ITSASLABARRAK	Itsasertza babestu eta antolatze Lurralde Plan Sektoriala	60%ko aldapa baino handiagoa duten kostaldeko itsaslabarrak dira eta hauek kontserbazioa balio handiko eremuak dira.
BALIO NATURELEKO BESTE ENKLABEAK	-	ZHAPOak balio naturala duten beste enklabe batzuk ere babesten ditu, hala nola, Elkanoko hariztiak, Santa Barbara gaineko ipar isurialdea eta Nekazabalgo hariztiak (Aitza auzoa).

Horrez gain, lurraldean dauden bestelako planek ere Zarautzeko eremu batzuk kontutan hartzen dituzte, eta beraz, hirigintza planean ere kontutan hartu dira **Ingurumen hobekuntzarako eremu** moduan. Horren adibide da **Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialak** Iñurritzako padura barne hartzen duela eta bertan berreskuratu beharreko ingurune degradatua eta ekosistemen hobekuntzarako ingurune moduan sailkatu dituela bidezubiaren iparralde eta Asti eta Sakoneta eremuak.

Aipatutako ekosistema horietan **Europar Batasunean garrantzizkoak (92/43/CEE Zuzentaraua)** diren 19 habitat ere aurkitzen dira udalerrian, 4 lehentasunezkoak izanik: **duna grisak** (2130*) Iñurritza biotopoen kokatuta, **kostako txilardi lehorrak** (4040*) kostaldera begirako eremuetan bai Getaria aldera baita Aia aldera ere, kosta alderako **belardi lehor erdinaturalak orkidea ugarikoak** (6210*) eta **haltzadiak** (91E0*) Tejeria eta Pagoeta inguruak.

Habitat hauen kontserbazioa, baita udalerriko beste habitat naturalena ere, garrantzitsua da, bertan aurkitzen baitira maila desberdinean mehatxatutako **animalia eta landare espezie** asko. Egin diren azterketen arabera hauek dira Zarautzen eta **Espezie mehatxatuen EAEko katalogoan** aurki daitezkeen espezie asko batzuk:

- **Animalia espezieak:** Zarautzen aurki daitezkeen animalia espezie asko daude espezie mehatxatuen EAEko katalogoan barneratuta sailkapen mota desberdinarekin. **Galtzeko arriskuan** dauden artean aipatzekoak dira benarriz arrunta (*Acrocephalus schoenobaenus*) eta benarriz gorritza (*Locustella luscinioides*).
- **Landare espezieak:** Mehatxatuta dauden espezie gehienak lñurritzako biotopoari edo hezeguneei lotutako eremuetan aurkitzen dira. **Galtzeko arriskuan** sailkatuta dauden landare espezieak ondorengoak dira: Itsas ziabelarra (*Galium arenarium*), Itsas alpaka (*Medicago marina*), Itsas alisuma (*Alyssum loisereiurii*), Itsas arrauka (*Festuca vasconensis*), Dunetako urrezko makila (*Solidago virgaurea subsp. macrorrhiza*) edota malba-arrosa (*Hibiscus palustris*). Aipatzekoa da baita ere Garate-Santa Barbaran dauden artelatzak (*Quercus suber*) zein bakana moduan sailkatuta dauden.

Eremu lehorrean eta ur gezatan eragiten duten faktoreak

Nahiz eta Zarautzek eremu natural aberatsa izan, bertan **eragin edo inpaktu negatiboa izan dezaketen elementuak** ere aurkitzen dira, gainontzeko herrietan bezalaxe. Garraio azpiegiturek (A-8 errepideak, trenaren trazadurak...) eta hirigintza garapenak izaki bizidunentzako barrera linealak dira. Bestalde, **lurzoru kutsatuek eta degradatuak** ere lehorreko bizitzan eragin zuzena izan dezakete, izan ere, bertako lurzoruetatik gainontzeko eremuetara filtratu daiteke kutsadura.

Zarautzen **kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen** gehiengoa industria-jarduerei dagokie eta hiri-eremuan kokatzen dira. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak jasotzen duen inbentarioan badaude eremu naturalean kokatzen diren eta kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak ere, zabortegei dagozkienak hain zuzen ere. Kontutan hartu behar da inbentarioan jasotzen diren eremu guztiak ez dutela zertan kutsatuta egon beharrik, eta egon daitezkeela ere kutsatuta egoteko aukera izanik inbentarioan sartu ez diren lurzoruak ere.

Bestalde, Gipuzkoako Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak 2020an **Gipuzkoako Eremu Degradatuen Inbentarioa, katalogazioa eta aurretiazko karakterizazioa** egin ditu. Bertan jasotzen dira jatorri antropikoko arrazoiak direla medio, beren ingurumen elementuak eta funtzioak nabarmen galdu dituzten eremuak, eta beraz, lehengoratzeko eta hobetzeko ekintzak beharrezkoak dituzte, ahalik eta egoera ekologikorik onenera itzultzeko edo gutxienez hurbiltzeko. Eremu bakoitzaren fitxa osatuta dauka Diputazioak, eta Zarautzerako 3 eremu inbentariatu ditu: **Aitze harrobia** (15.710 m²), HG-UK-02 eremua, non **Zarautzeko marismak, Txarmoneta, Lakumeaga, Sarobeberri, Irita eta Asti eta Sakoneta** eremua hartzen dituen (609.184m²) eta **Zarautzeko Golf Zelaia** (141.961m²).

Biodibertsitatean inpaktu negatiboa sor dezaketen beste elementuak **espezie inbaditzaileak** dira. Hauen presentzia erkidego guztian areagotzen ari da, eta bertako espezieen gain eragin handia sortzen dute, hauek arriskuan jartzearaino. Zarautzeko udalerrian ere aurkitzen dira hainbat espezie inbaditzaile egin diren azterketek adierazten duten bezala, hala nola, landareen artean banbua (*Arundo donax*), *Baccharis halimifolia*, *Buddleja davidii*, panpa lezka (*Cortaderia selloana*) edota *Oenothera dummondii*, narrastien artean floridako apoarmatua (*Trachemys scripta*) eta hegaztien artean estrilda (*Estrilda astrild*).

Eremu lehorraren (eta ur geza) kudeaketa eta sentsibilizazioa

Udala Zarautzek daukan lehorreko ekosistemen aberastasunaren jakitun izanik, eta biodibertsitateak daukan garrantzia kontutan izanik, ekosistema hauek eta bertako habitat zein espezieak babestu, kontserbatu eta lehengoratu edo berreskuratzeko politikak martxan jarri ditu:

Basoak

Arestian aipatu bezala, lurzoru naturalaren gehiengoa pribatua da Zarautzen, horregatik, **Udalaren politika naturaren kontserbazio ikuspegitik interesgarriak diren lursailak eroستا** da eta hauen kudeaketa egokia egitea.

Azken urteetan udalak Garate-Santa Barbara eremuan erosi ditu lursailak:

- **Zingira basoa:** lehen lursailak bertan erosi zituen, 5 hektarea gutxi gorabehera, eta bertan pinudia ordezkatu eta artelatz basoa birsortzeko eta honen azalera handitzeko lanak burutu zituen.
- Ondoren, **Gesoerreka** inguruan beste bi partzela erosi ditu, Zingira basotik gertu. 2 hektareako partzela bateko pinudia bota eta berreskuratze naturala gertatzen ari da. Beste partzela batean (1 ha pasatxo daukana) Artelatz baso heldua dago, eta honen kudeaketa udalaren eskumenekoa da gaur egun.

Bestalde, Tejeriako eremuan dagoen altzadi basoaren kudeaketa zesio bidez lortu du udalak, nahiz eta formula hau zailagoa izaten den.

Eremu guzti hauek eta aurrerantzean lortuko direnak Eraztun Urdin Berdearekin lotzea da helburua.

Nekazaritza eta abeltzaintza

Udalak Munantxo eremuan **179 udal baratza** ditu eta hauek eskuratzeko lehentasuna pertsona langabetuek eta pentsiodun eta jubilatuek daukate. Baratza hauek arautzen dituen ordenantza berrikusten ari da udala eta baratzagintza ekologikoaren erabilera sustatzea aurreikusten da. Gainera **Zarauzko Baratze solidarioa** ere badago, zeina Caritas-ekin elkarlanean gauzatzen den.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak beste entitate batzuekin elkarlanean **Nekazaritza Lurren Funtsa** proiektua jarri du martxan, honen helburua nekazaritzaren sektorearekin lotutako proiektu profesionalak aurrera eramateko behar dituzten pertsona guztiei finkak eskuragarri jartzea delarik.

LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA

Ura

Zingira basoan kokatuta dagoen **zingira edo putzua berreskuratzeko** lanak egin dira. Inguru hauek garrantzitsuak dira espezie askoren ugalketarako eremuak baitira, hala nola, anfibiaok, burruntziak zein sorgin-orratzak, eta baita elikatze eta hidratatzeko eremuak ere adibidez suge espezieentzako edota saguzarrentzako.

Iñurritzako **errekastoa** lehengoratzeko lanak egin ditu URA erakundeak. Honekin batera Iritako paduraren zati handi bat ere berreskuratu da. Bertan egin diren lanen artean biodibertsitatearen kontserbaziorako aipagarriak ondorengoak dira:

- Errekastoaren ertzean **zuhaixkak landatu** dira, hala nola, Elorri zuria (*Crataegus monogyna*), Zuhandorra (*Cornus sanguinea*), Sahats Hauskara (*Salix atrocinerea*) eta Milazka (*Tamarix gallica*).
- **Hezegune zabala** sortu da garai batean padura naturala zegoen lur artifizializatueta (Iritako hezegunea). Bertan bioingeniaritzako teknikak aplikatu dira ingurunearen forma naturala eta bertako landaredia berreskuratzeko. Zehazki, guztira, Lizar arruntaren (*Fraxinus excelsior*), Haltzaren (*Alnus glutinosa*), Astigarraren (*Acer campestre*) eta Gurbitzaren (*Arbutus unedo*) 320 ale landatu dira.
- Proiektua gauzatzeko lanak aprobetxatuz, eremuan dagoen **landaredi inbaditzailea kentzeari** ekin zaio, hala nola banbua (*Arundo donax*).

Zarauzko udala, **Iritako hezegunea berreskuratzeko** URAK hasitako proiektuarekin jarraitzen du. Proiektuak 11.500 m³ lur kentzea aurreikusten du, hezegunearen azalera 6.500 m² handitzeko, eta horrela Iñurritzako biotopoari jarraipena emateko eta bertako biodibertsitatea kontserbatzeko.

Amaitzeko, **Olaa eta Igerian errekastoak azaleratzeko** lanak ere egin dira, URAK burutu ditu lehenaren kasuan eta udalak bigarrenaren kasuan Salberdin eremuan.

Hiri eremua

Hiri eremuan kokatuta dagoen **hondartzak ingurumen kudeaketarako** ISO 14001 (2002tik) eta EMAS (2004tik) ziurtagiriak dauzka, kutsadurari aurre hartzeko eta erabiltzaileen ingurumenarekiko jarrera hobetzeko. Udalak hartutako konpromisoen baitan dago hondartzako balio naturala babestea eta 2020 urtean jarri da bereziki biodibertsitatearen garrantzia mahai gainean, pandemia egoeran aztertutakoaren ondorioz.

Animalia eta flora espezieak

Zarautzeko eremu naturaletan dauden **animalia eta flora espezieak ezagutze aldera hainbat azterketa** egin dira, hala nola Iñurritzako biotopoan aurki daitezkeen hegazti eta landarediari buruzkoa, Sakeletxe-Asti eremuko landaredia eta fauna, Tejeriako haltzadiko hegazti eta landaredia, Irita eta Astierrekako eremuetako fauna eta flora.

Horrez gain, **Iritako hezeguneetan eta Astierrekako** eremuan dagoen biodibertsitatea babeste aldera, eta Iñurritzako biotopoarekin daukan jarraikortasuna dela eta bere **babesa bermatzeko** azterlana ere egin du, nahiz eta gaur egun daukan sailkapenarengatik (hiri lurzoru urbanizagarria) ezin den babestu.

Sentsibilizazioa

Amaitzeko, aipatu Zarauzko **Eraztun Berde Urdinak (EBU)** bere helburuen artean daukala zarautzarren inplikazioarekin biodibertsitatearen eta balio handiko natura-guneak kontserbatzea eta periferiako paisaia- eta natura-guneak berreskuratzea. Honen kudeaketa, mantenua eta jarraipena egiteko pertsona bat dago kontratatuta udalean.

LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA

Eraztuna udalerria inguratzen duen 11,7 kilometroko ibilbidea da eta kostaldeko zein lehorreko hainbat interes gune lotzen ditu, besteak beste, hondartza, Iñurritzako biotopoa, Iritako hezeguneak, Tejeriako haltzadia eta Garate-Santa Barbarako hainbat eremu. Ingurune hauetan bisita gidatuak egiten ditu udalak, eremuetan panel informatiboak ezarrita daude eta herritarrei zuzendutako kanpainak ere egiten ditu hainbat jarduera desberdin antolatuz, hala nola, Ingurumenaren Mundu Egunean (ekainaren 5ean).

Horrez gain, EBUk bere web orri propioa dauka. Beran ibilbideei buruzko informazioa ematen da, interes-guneei buruzko informazioa helarazten baita bertako landaredi eta faunari buruzkoa ere, udalerrian biodibertsitateari buruz egin diren azterlanen dokumentuak eskuragarri daude. Gainera, 2022an web gunea eguneratu egin da eta herritarrekin etengabe kontaktuan egoteko tresna izango da aurrerantzean.

Eskolako 2030 Agendan 2021-2022 ikasturtean 15. Garapen Jasangarrirako helburua lantzen ari dira ikasleak.

Bestalde, Arkamurka natur taldeak, udalarekin elkarlanean, hainbat sentsibilizazio ekimen burutzen ditu: natur astea, astronomia astea, zinekluba, hitzaldien zikloa eta irteera gidatuk.

EKIMEN ESANGURATSUAK

- **Garate-Santa Barbara enklabeako eremuak berreskuratzea:** Udalak lurren erosketa egin du eremu honetan artelatzen basoa berreskuratu eta hauen presentzia areagotzeko, eta bertako zingira, eta bide batez bertako fauna eta flora, berreskuratzeke. Eremu hauek Zingira basoa eta Gesoerreka dira.
- **Irita eremuko hezegunearen berreskuratzea:** Eremu honek biodibertsitatearen aldetik duen garrantzia eta balioa kontutan izanik, eta Iñurritzako babesgune naturalarekin multzo ekologikoa osatzen duela kontutan hartuz, berau berreskuratzeke eta babesteko lanak egin dituzte URAk eta Udalak. Babes eremua gainera Astierreka ingurura ere zabaldu nahi da.
- **Eraztun Berde Urdina (EBU):** Zarauzko hainbat lehorreko eta itsasoko interes gune lotzen dituen eraztuna da, hala nola, hondartza, Iñurritzako biotopoa, Iritako hezeguneak, Tejeriako haltzadia eta Garate-Santa Barbara. Honen helburu nagusia denen artean Zarauzko biodibertsitatea eta natura zaintzea da, horretarako ingurumen heziketa eta sentsibilizazio eginez.



ERAGILEEN PERTZEPZIOA

- Eremu natural aberatsa dauka (itsasoa, hondartza, mendia...) eta espazio irekia da, horrek aberastasuna, erosotasuna eta kalitatea ematen dio herriari eta herritarrei. Aipatzen da baita ere, postal polit horren atzean arazoak daudela (turismo mota, herri garestia...).
- Nahiz eta eremu natural asko suntsitu diren, Zarautzen oraindik padurak badaudela azpimarratzen da, baina hauen kontserbazioaren inguruko kezka ere agertzen da.
- Egiten diren garbiketa kanpainei buruzko komunikazioa indartu beharko litzakeela adierazten da, batzuetan herrian ez omen da kanpaina hauei buruzko ezer entzuten.

LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA

- Obrak egiten diren momentuan, naturan eta baserrietan duten eraginak kezka sortzen du.
- Salberdinen egiten ari diren garapenarekin bertako baratzak desagertu egin dira, eta hauek beste nonbait jartzeko beharra azpimarratu da.
- Udalak landa eremuko lurzoru gehiago erosi beharko lituzkeela azpimarratzen da bertan kudeaketa jasangarria bermatzeko.
- Espazio berdeen eta eremu naturalaren beharra gero eta handiagoa izango dela gure gizartean aipatzen da, eta kezka sortzen du udalerriaren hazkundera ekar lezakeen urbanizazio beharrak.
- Herriguneko berdeguneen falta sumatzen da eta hauen kudeaketa ezegokia dela aipatzen da. Herri barruko zuhaitzak zaindu behar direla aipatzen da.

ETORKIZUNERA BEGIRAKO JOERAK

Etorkizunari begira, lehorreko ekosistemen arloan ondorengo lan-ildo edo tendentzia nagusiak identifikatzen dira:

- Naturaren kontserbazio ikuspegitik interesgarriak diren lursailen erosketa politikarekin jarraitzea eta lursail hauek kudeaketa egokia egitea.
- Errekaren leheneratzea ahal den heinean bideratzea
- Zarauzko Hirigintza Plan Orokorra berritzerako orduan lehorreko espazio naturalen babes mailak aztertzea eta egokitzea, bereziki Iritako eta Astierrekako eremuaren babes maila lortzeko pausuak emanez.
- Hiri biodibertsitatea balioan jarri eta hau indartzeko politikak abiarazi.
- Eratzun Berde Urdinaren mantenua egitea eta baliabide hau herritarrekin batera osatzen joatea, horretarako informazioa, azterketak, zaintza, Web orri berriaren kudeaketa, ibilbideen kudeaketa eta mantenua, eta abar eginez.
- Eratzun Berde Urdinaren baitan EBU kluba sortzea ikastetxeekin eta Eskolako 2030 Agendarekin elkarlanean.
- Sentsibilizazioarekin lotuta azterlanak eta hauen argitalpenekin egiten jarraitzea